

KOSTUAK

Gure enpresan balioan oinarritutako negozio-eredua jarraituko dugu. Gure printzipio nagusia ez delako prezioak minimizatzea, produktuen kalitatea zainduz, bezeroak behar duen balioa sortzea baizik. Kostuen artean bi mota bereizi ditzakegu:

-Kostu finkoak: Produzitutako produktu edo zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen ez diren kostuei kostu finko esaten diegu. Gure kasuan, Webgunea sortu eta hori izateak ekartzen dituen gastuak, denda fisikoaren alokairua, langileen soldata, publizitatea, harreman publikoa eta WIFI-aren instalakuntza izango lirateke.

-Kostu aldagarriak: enpresaren jarduera-maila edo ekoizpenarekin batera gehitzen den horri deritzo. Gure kasuan, elektrizitatea, ura, salgaiak (ditugun salmenta-bolumenaren arabera izango dira) eta beste enpresa batzuek egindako lanak.

Guk salduko ditugun produktuak beste enpresa bati erosiko dizkiegunez, erosketa horrek kostu batzuk izango ditu. Kostu horren balioa zehazki ez dakigu oraindik. Erosketa hori egiterakoan produktuaren kalitateaz eta naturan eragiten duen inpaktuan erreparatuko dugu lehenengo, ondoren prezioari eta produktuaren jatorrian. Honela guk salduko ditugun produktuak guztik ekologikoak izango dira eta prezio-kalitate harreman ona izango du.

Hasieran, nahiz eta gure kostuak sarrerak baino handiagoak izan, ez gara larrituko, izan ere badaudelako hasieran nahi eta nahiez egin beharreko erreformak eta horiek dakartzaten gastuak. Esaterako, lokalaren kondizioa ikusi eta berrikuntzarik behar izanez gero horiek egitea; ondoren, pintatzea eta azkenik gure altzariak jartzea. Gure kostuak minimizatzen saiatuko gara aurretik aipaturiko egin behar horiek egiterako garaian. Baina beste hainbat kasutan beharrezko izango da iturgina, elektrizista edo igeltseroaren lana.